

Lan-poltsa

Adingabeen zentroko hezitzaileak

1. ariketa, zati teorikoa

A Eredua

2015/03/01

- 1 GATAZKA SOZIALEAN DAGOEN ADINGABEA: GIZARTEAK JARRIAK DITUEN ARAUEKIKO DESEGOKITZAPEN-PROZESU BATEAN DAGOENA.**
- 1a) Egia, baldin eta adingabeak 14 urte baino gehiago baditu.
 - 1b) Egia, baldin eta adingabea 15 eta 16 urte bitartekoa bada.
 - 1c) Definizio horretan adingabe guztiak sartzen dira.
 - 1d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 2 UMEZAROAN ETA NERABEZAROAN, BADIRA GIZARTEAREN AURKAKO JOKABIDE BATZUK -BAITA DELITUZKOAK ERE-, HAZTEN, IKASTEN ETA GIZARTEAN GARATZEN ARI DIRELAKO AGERTZEN DIRENAK, PROZESU HORREN BEREZKO PARTE GISARA.**
- 2a) Egia da.
 - 2b) Gezurra da.
 - 2c) Soilik, gizartearen aurkako jarrera horiek indarkeriarik ere baldin badakarte.
 - 2d) Soilik, gizartearen aurkako jarrera horiek indarkeriarik ez baldin badakarte.
- 3 GIZARTEAN EGOKITU EZINIK, GATAZKA PIZTEKO PROZESUA: HAINBAT TEORIA DAGO PROZESU HORIEN JATORRIA ETA GARAPENA AZALTZEKO, BAINA ZEIN DIRA NAGUSIETAKO BATZUK?**
- 3a) Teoria Psikoanalitikoak.
 - 3b) Ikaskuntza sozialaren teoriak.
 - 3c) Teoria kognitiboak eta azpikognitiboak.
 - 3d) Psikoanalitikoak, Ikaskuntza sozialekoak, Kognitiboak eta Ekologikoak.
- 4 GAZTEEN DELINKUENTZIARI IGARTZEA ETA AURREA HARTZEA; HORRA HOR BI TERMINO BATA BESTEARI ESTU-ESTU LOTUAK.**
- 4a) Aurrea hartzeak esan nahi du gizartearen aurkako edo delituzko jokabideak saihestea; eta igartzeak, berriz, arrisku-egoerak ezagutzea.
 - 4b) Gazteen delinkuentziaz ari garela, ez dago bi termino horien arteko loturarik.
 - 4c) Gazteen delituez ari garelarik, esanahi berbera dute.
 - 4d) Aurrea hartzea eraginkorragoa da nagusien delinkuentzian; eta igarri, berriz, adingabeen delinkuentzia da igarri errazagoa.
- 5 GARAPEN-TEORIEN ARABERA, ZEIN FAKTORE DIRA ARRISKUTSUENAK, GIZARTEAREN AURKAKO JOKABIDEETAN HASTEKO?**
- 5a) Hazkuntza sendoa.
 - 5b) Adimen-koefiziente altua.
 - 5c) Baliabide ekonomikoak.
 - 5d) Kalitate baxuko hazkuntza, adimen-koefiziente baxua eta baliabide ekonomikorik eza.

6 ADINGABEEN DESBIDERATZE SOZIALAREN EREDU KRIMINOLOGIKOAK ZER DIO ADINGABE ARAU-HAUSTAILEEN EBALUAZIOAZ ETA HAIEKIKO INTERBENTZIOAZ?

- 6a) Bada lan bat, ebaluaketarekin eta interbentzioarekin batera egin beharrekoa: zehaztea ea zenbateko arriskua duten delitu-bidean aurrera jarraitzeko.
- 6b) Adingabe arau-hausleekin ari garela, alde batetik ebaluaketa eta interbentzioa dauzkagu, eta, bestetik, delitu-bidean aurrera jarraitzeko duten arriskua; bata ez dago bestearekin loturik.
- 6c) Interbentzio-programak inoiz ez dira berrekite-arriskura lotzen.
- 6d) Ebaluaketa ez dago interbentziara loturik.

7 NERABEZAROAN, DROGA EDO ALKOHOLA HARTUZ GERO, INDARKERIA INHIBITZEKO KONTROLAK MURRIZTURIK GERATZEN DIRA...

- 7a) Arriskuarekiko beldurra eskastuz.
- 7b) Mugitzeko ahalmena eskastuz.
- 7c) Nahimen-gaitasunak handiagotuz.
- 7d) Manipulazio-gaitasunak handiagotuz.

8 DELITUETAN GAZTE-GAZTETATIK HASI ZIRENAK:

- 8a) Ez dute ezberdintasunik delituetan beranduago hasten direnekiko.
- 8b) Arazo fisiko gehiago jasan ohi dute.
- 8c) Eragiketa abstraktuetan zailtasunak izaten dituzte.
- 8d) Egiten dituzten delituek askoz ere patroï finkatuagoa dute, eta harremanetarako arazoak eta gizarte-arazoak edukitzeko joera dute.

9 LEGEZKO/LEGEZ KANPOKO DROGA HAUEN ARTETIK, NERABEEK ZEIN KONTSUMITZEN DITUZTE SARRIAGO?

- 9a) Benzodiazepinak.
- 9b) Tabakoa, alkohola, kanabisa eta anfetaminak.
- 9c) Opiazeoetatik eratorritakoak.
- 9d) Tabakoa eta kokaina.

10 ALKOHOLAREN GEHIEGIZKO KONTSUMOA 15-19 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN AZTERTZEKO EGIN DIREN LANETAN IKUSI DENEZ, NOIZ DA NABARMEN HANDIAGOA KONTSUMOA?

- 10a) Asteburuetan.
- 10b) Lan-egunetan.
- 10c) Familiar arazoak daudenean,
- 10d) Eskola-porrota dagoenean.

11 ADINGABEA ZENTRO BATEAN SARTUZ GERO, NORI JAKINARAZI BEHAR ZAIO?

- 11a) Agindua eman duen adingabeen epaitegiari, adingabearen letratuari eta adingabearen legezko ordezkariari edo, halakorik ezean, adingabeak izendatzen duenari.
- 11b) Agindua eman duen adingabeen epaitegiari, fiskaltzari eta adingabearen letratuari.
- 11c) Agindua eman duen adingabeen epaitegiari, adingabearen letratuari eta adingabeari bizilekuaren arabera dagokion adingabeen babeserako erakundeari.
- 11d) Agindua eman duen adingabeen epaitegiari, fiskaltzari eta adingabearen legezko ordezkariari edo, halakorik ezean, adingabeak izendatzen duenari.

12 HITZ EGIN DEZAGUN INGURUNE IREKIKO INTERBENTZIO PSIKOSOZIO-EDUKATIBORAKO PROGRAMEZ:

- 12a) Ez dago horrelako programarik, ikastetxearen edo prestakuntza-zentroaren barruan bilduta egoten dira-eta.
- 12b) Ingurune Irekiko ekipoak diseinatzen ditu, eta dagokion adingabeen epaitegiak onartu.
- 12c) Barneratze-neurri bat amaitzen denean diseinatzen dira soilik.
- 12d) Adingabeen epaileek eta ekipo teknikoek diseinatzen dituzte ingurune irekian esku hartzeko programak.

13 GAZTEEN JUSTIZIAKO ZERBITZUAK (EUSKO JAURLARITZA) ZEIN BALIABIDE DAUKA, ASKATASUNA GALTZEA DAKARTEN NEURRIAK BETETZEKO?

- 13a) Askatasuna gehien murrizten duten neurrietarako, I Mailako Zentroak.
- 13b) II Mailako Zentroak; zein neurri betetzeko? Itxian (iraupen laburrekoak), erdi irekian edo irekian bete beharreko neurriak, erkidegoarekiko lotura estua eskatzen dutenak.
- 13c) III. mailako ikastetxeak; Autonomia-egoitzak.
- 13d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

14 ZER DA IHP (IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA)?

- 14a) Agiri horretan egoten dira jasota ikastetxean dauden adingabeen espediente pertsonaletako eta judizialeko agiri guztiak.
- 14b) Agiri horretan jartzen dira zehazturik printzipio psiko-sozio-pedagogikoak, ikastetxearen nortasunaren gidari.
- 14c) Desegokitutako jokabideetan esku hartzeko programa bat da.
- 14d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

15 IBAIONDO IKASTETXEAN, DELITUAK ZEIN ADINETAN EGIN DITUZTEN GAZTEAK HARTUKO DIRA?

- 15a) 13 - 14 urterekin
- 15b) 14 - 15 urterekin
- 15c) 15 - 18 urterekin
- 15d) 14 - 18 urterekin

16 GAZTEEI, HASIERAKO EBALUAKETA BAT EGITEN ZAIE, HAIEKIN NOLA ESKU HARTU JAKITEKO. BADA, IHP-N JARTZEN DUENEZ (IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA), ZERTAN OINARRITZEN DA?

- 16a) Arazoetan, gabezietan eta baliabide pertsonaletan.
- 16b) Izakeran eta familiaren baliabideetan.
- 16c) Jokaeran eta baliabide ekonomikoetan.
- 16d) Gertakarietan eta baliabide pertsonaletan.

17 HITZ EGIN DEZAGUN BANAKAKO ARRETA INTEGRALAZ. IHP-N JARTZEN DUENEZ (IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA), ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 17a) Arreta biopsikosoziala da, pertsona osorik hartzen duena, eta adingabeko bakoitzaren berriazko premiei erantzuteko diseinatua.
- 17b) Arreta integralak inguru sozialarekiko harremanak ditu soilik gogoan.
- 17c) Arreta banakakoak eta integratzaileak babes-faktoreak soilik ditu kontuan.
- 17d) Arreta banakakoak eta integratzaileak familia-harremanak soilik ditu kontuan.

18 IHP-N JARTZEN DUENEZ (IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA), NOLA DEFINITURIK DAGO IBAIONDO IKASTETXEAREN MARKO TEORIKOA?

- 18a) Eredu integratzailea.
- 18b) Harreman Eredu Kaltegarria (adbersoa).
- 18c) Eredu Motibatzaile Erreaktiboa
- 18d) Eredu Pedagogiko Portaerazkoa.

19 EREDU HAUETAKO ZEIN EZ DAGO IBAIONDO IKASTETXEKO MARKO TEORIKOAREN BARRUAN:

- 19a) Eredu Kognitibo-Konduktuala.
- 19b) Eredu ekologikoa.
- 19c) Eredu Punitibo Zehatzailea eta Berroneratzailea.
- 19d) Eredu Konstruktibista.

20 IHP-N (IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUAN), ZEIN PRINTZIOPIO OROKOR DAGO, INTERBENTZIO-ESPARRUAK GARATZEKO?

- 20a) Globalizazio-printzipio orokorra.
- 20b) Orientazio-printzipio orokorra.
- 20c) Normalizazio-printzipio orokorra.
- 20d) Eskolaratze-printzipio orokorra.

21 IHP-N, ZEIN INTERBENTZIO-ESPARRU DAUDE JASOTA?

- 21a) Osasuna, Prestakuntza/Lana, Erantzukizunak hartzea/Moralaren garapena, Eguneroko bizitza, eta esparru psikosoziala.
- 21b) Osasuna, Prestakuntza/Lana, Erantzukizunak hartzea/Moralaren garapena, Eguneroko bizitza, eta Familia.
- 21c) Osasuna, Prestakuntza/Lana, Erantzukizunak hartzea/Moralaren garapena, Eguneroko bizitza, eta Egokitze Baliabideak.
- 21d) Osasuna, Prestakuntza/Lana, Erantzukizunak hartzea/Moralaren garapena, Eguneroko bizitza, eta Aisialdia.

22 PROFESIONAL HAUETAKO BAT EZ DAGO IKASTETXEKO LANTALDE MULTIDIZIPLINARREAN. ZEIN DA?

- 22a) Psikologoak.
- 22b) Gizarte-langileak.
- 22c) Ikasgeletako eta tailerretako irakasleen koordintzailea.
- 22d) Segurtasun-taldeko burua.

23 BARNEALDIA BETETZEN DUTEN BITARTEAN, ADINGABEKO GUZTIEK EZ DUTE FASE ARTEKO IBILBIDEA BERDIN EGITEN. ZEREN ARABERA, BAINA?

- 23a) Erregimen judizialaren arabera eta barnealdiaren iraupenaren arabera.
- 23b) Erregimen judizialaren arabera eta delituaren larriaren arabera.
- 23c) Barnealdiaren iraupenaren arabera eta adingabea berrekina den gorabeheran.
- 23d) Delituaren larriaren arabera eta adingabea berrekina den gorabeheran (erreintzidentea).

24 IHP-AREN ARABERA (IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA), ZENBAT IRAUTEN DU HARRERALDIAK?

- 24a) Barnealdiaren lehen hilabetea.
- 24b) Hurrengo fasera igaro arte, zein jokabide duen gorabeheran.
- 24c) Bost egun.
- 24d) Neurriaren lehen herena.

25 ZENTRORA SARTZEN DIRENEAN, ZER JASOKO DUTE ADINGABEEK?

- 25a) Ahozko informazioa dauzkaten eskubide-betebeharrei buruz, dagokien barneratze-erregimenari buruz, antolaketa-kontu orokorrei buruz, eta zentroaren funtzionamendu-arauei buruz.
- 25b) Idatzizko informazioa dauzkaten eskubide-betebeharrei buruz, dagokien barneratze-erregimenari buruz, antolaketa-kontu orokorrei buruz, eta zentroaren funtzionamendu-arauei buruz.
- 25c) Ahozko informazioa dauzkaten eskubide-betebeharrei buruz, dagokien barneratze-erregimenari buruz, diziplina-arauei buruz, eskariak edo kexak egiteko bitartekoei buruz, eta zentroaren funtzionamendu-arauei buruz.
- 25d) Erantzun guztiak okerrak dira.

26 ADINGABEA HURRENGO FASERA JOAN EDO EZ ERABAKITZEKO ORDUAN:

- 26a) Ikastetxeko psikologoak ez du parte hartzen.
- 26b) Lehen instantzian, Eguneroko Bizimodurako Lantaldeak parte hartzen du.
- 26c) Ez da kontuan hartzen adingabeak zenbat puntu metatu duen.
- 26d) Hezkuntza-arloko bilera bakar batean egiten da balorazioa.

27 ZER-NOLAKO SISTEMA DA IKASTETXEKO FASE-SISTEMA?

- 27a) Pribilegioak arautzeko da.
- 27b) Arauak jartzeko.
- 27c) Motibaziorako da.
- 27d) Puntuak arautzeko da.

28 IKASTETXERA SARTZEN DENEAN, ADINGABEAK, BARNEALDIKO LEHEN EGUNEAN:

- 28a) Ez du kanpoko ezerekin inolako kontakturik, ez eta telefono-deirik ere.
- 28b) Ez du inolako kontakturik ikastetxeko gainerako adingabeekin.
- 28c) Egun osoa bere gelan ematen du.
- 28d) Ikastetxeko irakasleekin entrebista bat izango du.

29 IBAIONDO IKASTETXEKO FASE-SISTEMA DELA-ETA, ESALDI HAUETAKO BAT BAKARRIK DA ZUZENA:

- 29a) Hezkuntza-faseen arteko ibilbidea goranzkoa da soilik; behin fase jakin batera iritsiz gero, ez da atzera egiten.
- 29b) Behin fase batera iritsita, beti badira pribilegio batzuk; fase guztietan.
- 29c) Hezkuntza-fase bat lortzeko bete beharreko helburuek ez dute zerikusirik epaian agintzen diren helburuekin.
- 29d) Hezkuntza-fase bakoitza lortzeak ez du eraginik irteera baimenduak planifikatzeko orduan.

30 PUNTUAZIO-SISTEMA DELA-ETA, ZEIN DA OKERREKO ESALDIA?

- 30a) Diziplina-arloko arau-hausteak egiteak puntu-galera dakar, baina ezinezkoa da lortutako puntu guztiak galtzen.
- 30b) Asteko zenbaketa egiteko, geletan eta tailerretan izandako jarrera eta etekina ere puntuatzen da.
- 30c) Asteko zenbaketak aparteko pribilegioak eman ditzake.
- 30d) Txanda bakoitzeko profesionalak erabakiko dute adingabeko bakoitzari zein puntuazio eman (puntu 1 positiboa edo negatiboa), eguneroko bizimodurako esparruetako bakoitzean.

31 HEZKUNTZARAKO KONTRATUA DELA-ETA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 31a) Kontratu horretan dator zehazturik fase bakoitzak zein pribilegio dakarren, eta zein helburu garatu behar diren hurrengo fasera iristeko.
- 31b) Adingabeak, tutoreak eta talde multidiziplinarreko kideek sinatzen dute kontratua.
- 31c) Adingabeak ez du parte hartzen kontratu hori idazten eta burutzen.
- 31d) Hezkuntzarako kontratuan sinaturiko akordioak ez betetzea diziplina-espeditatea zabaltzea dakar.

32 GNS-10AREN ARABERA (GAIXOTASUNEN NAZIOARTEKO SAILKAPENA, CIE-10), ZEIN HIRU SINTOMA AGERTZEN DIRA ABSTINENTZIA-SINDROME DELIRIUMDUNEAN?

- 32a) Kontzientzia iluntzea eta nahastuta egotea; haluzinazioak eta ilusioak, edozein zentzumenek sortuta; eta dardara handia.
- 32b) Kontzientzia iluntzea; antsietate-krisia; eta agresibitate handiagoa.
- 32c) Haluzinazioak eta ilusioak, edozein zentzumenek sortuta; izualdia; eta irrealitate-irudipena.
- 32d) Kontzientzia iluntzea eta nahastuta egotea; haluzinazioak eta ilusioak, edozein zentzumenek sortuta; eta sindromea eragin duen substantzia kontsumitzeko irrika geldiezina.

33 ALKOHOLAK EDO SUBSTANTZIA PSIKOTROPIKOEK ERAGINDAKO NAHASMEN PSIKOTIKO ERRESIDUALA ETA HASIERA BERANTARREKO NAHASMEN PSIKOTIKOA. HAUETAKO ZEIN EZAUGARRI DU -BAT BAKARRIK-, GNS-10AREN ARABERA?

- 33a) Biziberrikuntzarik ez.
- 33b) Ez du atzera bueltarik.
- 33c) Aurretiazko jokamolde normalak aldatzea edo nabarmen esajeratzea dakar.
- 33d) Substantzia ororen zuzeneko ondorioek badute arrazoizko jo daitekeen iraupen bat; bada, nahasmen honek ez du gehiago iraun behar.

34 NAHASMEN DISOZIALAREN DIAGNOSIA JOKABIDE JAKIN BATZUETAN OINARRITZEN DA. ZEIN DIRA?

- 34a) Beste pertsona edo animalia batzuen aurkako krudelkeria; beste inoren jabetzak txikitzea, larriki; sua piztea.
- 34b) Lapurretak, behin eta berriz gezurretan aritzea; eskolara kale egitea; eta etxetik ihes egitea.
- 34c) A) eta B) erantzunak okerrak dira.
- 34d) A) eta B) erantzunak zuzenak dira dira.

35 NAHASMEN DISOZIAL OLDARKORRA ETA AURKA EGIN ZALEA:

- 35a) 9-10 urte baino gutxiagoko umeek izaten dute.
- 35b) Oldarkorra oso, obeditzen ez duena eta probokatzaila; baina legea edo beste inoren eskubideak urratzeko moduko ezer disozialik edo agresiborik egin gabe.
- 35c) Nahasmen hau duten umeak helduen eskari eta arauen aurka tematzen dira, eta beste pertsona batzuk nahita gogaitzen ibiltzen dira.
- 35d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

36 UMEEN BESTE NAHASMEN BAT BANAKETA-ANTSIETATEARENA DA. ZER DA?

- 36a) Kezka arrazoirik gabea, ez ote duen -okerren bat gertatu dela-eta- esanahi handiko nor edo norengandik banatu beharra izango.
- 36b) Sintoma somatiko batzuk behin eta berriz (goragalea, urdaileko mina, buruko mina edo botaka egitea), esanahi handiko nor edo norengandik banatzeagatik; adibidez, etxetik ateratzea eskolara joateko.
- 36c) Gehiegizko ondoeza, behin eta berriz (antsietatea, marruak, kasketa, tristura, gogo-galtzea eta besteekiko urruntzea), garrantzi handikoa zaion nor edo norengandik banatu baino lehenago, banatu bitartean edo banatu eta segituan.
- 36d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

37 UMEZAROAN, BINKULAZIO-NAHASMEN ERREAKTIBOAN:

- 37a) Usu ikusiko ditugu autoagresioak eta heteroagresioak eta tristura, eta, batzuetan, ume horiek beranduago haziko dira.
- 37b) Sindrome hori, ziurrenera, gurasoengandiko gabeziaren batengatik, gehiegikeriengatik edo tratu txar larriengatik agertuko da.
- 37c) A) eta B) erantzunak okerrak dira.
- 37d) A) eta B) erantzunak zuzenak dira dira.

38 DSM IV-REN ARABERA, EZAUGARRI HAUETAKO BAT EZ DA IZAERAREN NAHASMEN ANTISOZIALARENA. ZEIN?

- 38a) Diagnosi horretara iritsi ahal izateko, subjektuak gutxienez 18 urte eduki behar ditu; eta nahasmendu disozial baten sintoma batzuen historia ere bai, 15 urte baino lehenagotik.
- 38b) Beste gauza bat ere badute: beren edo besteen segurtasunarekiko kezka-gabezia burugabekoa. Garbi geratzen da gidatzeko izaten duten moduan (behin eta berriz arinegi; intoxikaturik gidatzea; hainbat istripu).
- 38c) Nahasmen hori dutenek beren burua botatzeko jarrera izaten dute, ahaleginak egiten dituzte edo mehatxuka ibiltzen dira behin eta berriz, edo beren burua mutilatzeko joera dute.
- 38d) Atxilo ditzaten moduko gauzak egin ditzakete behin eta berriz (baliteke atxilotzea edo ez), esate baterako, jabetzak hondatzea, beste batzuk jazartzea edo lapurretan egitea, edo legez kanpoko jardueretan aritzea.

39 ZER EGIN, BESOA HAUTSIZ GERO?

- 39a) Benda estugarria bat jarri, inflamazioa leuntzeko.
- 39b) Zauritua trasladatu, segituan.
- 39c) Min hartuta dagoen ingurua immobilizatzea, estutu gabe.
- 39d) Hezurra bere lekuan jarri, minik eman ez dezan.

40 ZEIN DA HEMORRAGIAK HASIERA BATEAN ETETEKO MODURIK ERRAZENA ETA SEGURUENA?

- 40a) Presio zuzena.
- 40b) Zapaltze-puntuaren gaineko presioa.
- 40c) Zeharkako presioa.
- 40d) Torniketea.

41 NOLA GARBITU ZAURI SINPLE BAT?

- 41a) Talko-hautsak eta sulfamidak aplikatuz.
- 41b) Kotoia eta alkohola erabiliz.
- 41c) Erditik kanporantz.
- 41d) Zauriaren kanpo aldetik erdirantz.

42 ZER EGIN, NOR EDO NOR KONBULTSIOKA BALDIN BADAGO?

- 42a) Indarrez heldu.
- 42b) Min hartzeko moduko gauza guztiak ingurutik kentzea.
- 42c) Zapi lodi bat biribildu, eta aho barruan sartu, mihiari hozka ez egiteko.
- 42d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

43 UMEEN ESKUBIDEEN GAINEKO 1989KO AZAOAREN 20KO ITUNA. 37. ARTIKULUAN JARTZEN DUENEZ, ASKATASUNA KENDU ZAION UME OROK DU ESKUBIDEA...

- 43a) Laguntza juridikora eta bestelako laguntza egokira bizkor iristeko.
- 43b) Askatasun-gabetze horren legezkotasunaren aurka egiteko eskubidea, dela auzibidean edo dela beste agintari eskumendun, independente eta inpartzial batean.
- 43c) Hala behar ote duen bizkor erabaki dadin.
- 43d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

44 ADINGABEAK ENTZUN DAKION DUEN ESKUBIDEAZ, ZER DIO 1/1996 LEGE ORGANIKOAK, ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARI BURUZKOAK?

- 44a) Adingabeak berak izenda dezakeela -zentzuduna izan edo ez- nork ordezkatu duen.
- 44b) Nahikoa zentzu duenean, adingabeak izenda dezakeela nork ordezkatu duen, baita ordezko hori alderdi interesduna izanda ere.
- 44c) Nahikoa zentzu duenean, adingabeak izenda dezakeela nork ordezkatu duen, baina ordezko horrek ezin du alderdi interesduna izan.
- 44d) Legezko ordezkariak ezin duela, inoiz ere ez, adingabearen iritzia jakitera eman.

- 45 HITZ EGIN DEZAGUN BAKARRIK DATOZEN ADINGABEEI BURUZ. 4/2000 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA (ATZERRITARREK ESPAINIAN DITUZTEN ESKUBIDE-BETEBEHARREI BURUZKOA DA), BIZILEKU-BAIMENA EMANAGATIK ERE...**
- 45a) Horrek ez du esan nahi, gerora, atzera beren aberrira itzularazi ezin direnik, delitu larrietan berrekinak badira.
- 45b) Horrek ez du esan nahi, gerora, atzera beren aberrira itzularazi ezin direnik, adingabearen interes goragokoen mesedetan bada.
- 45c) Horrek ez du esan nahi, gerora, atzera beren aberrira itzularazi ezin direnik, bi urte baino gehiagoko barneratze-neurri baten amaieran.
- 45d) Bizileku-baimena baldin badauka, bakarrik dagoen adingabea ezin da, inoiz, atzera bere aberrira itzularazi.
- 46 KONTU EGIN ERTZAINZAK ADINGABE BAT ATXILOTU DUELA. FISKALTZAREN ESKU GERATZEN DENEAN, FISKALAK ZENBAT DENBORA IZANGO DU ERABAKITZEKO EA ASKE UZTEN DUEN, ATZERA EGITEN DUEN EDO ESPEDIENTEA ABIARAZTEN DUEN?**
- 46a) 24 ordu, atxilotzen dutenetik.
- 46b) 48 ordu, atxilotzen dutenetik.
- 46c) 24 ordu, fiskaltzaren esku geratzen denetik.
- 46d) 48 ordu, fiskaltzaren esku geratzen denetik.
- 47 HITZ EGIN DEZAGUN ADINGABEEK ZER EDO ZER ZUHURTZIAGABEKERIAZ EGINEZ EDO EGIN GABE UTZIZ HAUSTEN DITUZTEN ARAUEZ. NOLA EZIN DIRA ZEHATU?**
- 47a) Erregimen itxian barneratuz.
- 47b) Terapeutikoki barneratuz.
- 47c) Asteburuetarako barneratuz.
- 47d) Askatasun zaintzapekoan.
- 48 ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARI BURUZKO 1/1996 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, AUKERA HAUETAKO ZEIN DA ADINGABEAREN OHORE-ESKUBIDEAN ETA IRUDIAN BERTAN ZILEGITASUNIK GABE ESKU-SARTZEA?**
- 48a) Adingabearen irudia edo izena komunikabideetan erabiltzea -edonola delarik ere-, baldin eta haren ohoreari edo izen onari kalte egin badieziaioke.
- 48b) Adingabearen irudia edo izena komunikabideetan erabiltzea -edonola delarik ere-, baldin eta haren interesen aurka bada. Baita adingabearen baimena edukita ere.
- 48c) Adingabearen irudia edo izena komunikabideetan erabiltzea -edonola delarik ere-, baldin eta haren interesen aurka bada. Baita adingabearen legezko ordezkarien baimena edukita ere.
- 48d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 49 KONTU EGIN DONOSTIAKO ADINGABEEN EPAITEGIAK BARNERATZE-NEURRI BAT EZARRI DIOLA ADINGABE BATI. NEURRI HORI EXEKUTATZEKO PROGRAMA IBAIONDO IKASTETXEAK EGIN DU; BAINA NORK ONARTU BEHAR DU?**
- 49a) Eusko Jaurlaritzako Justiziako zuzendariak.
- 49b) Donostiako fiskaltzak.
- 49c) Donostiako Adingabeen epaileak.
- 49d) Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak.

- 50 FISKALTZAK EDO AKUSATZAILE PARTIKULARRAK NEURRI JAKIN BAT ESKATZEN BADUTE, ADINGABEEN EPAILEAK EZIN DU ESKUBIDE-MURRIZKETA HANDIAGOKO EDO IRAUPEN LUZEAGOKO BESTE NEURRIRIK EZARRI. ZEIN IZEN DU HORREK?**
- 50a) Akusazio-printzipioa.
50b) Adingabearen interesaren printzipioa.
50c) Printzipio inkisitorioa.
50d) Legezketasun-printzipioa.
- 51 HITZ EGIN DEZAGUN ERANTZUKIZUN ZIBILAZ. GERTATU DENAREN ERANTZULEAK 18 URTE BAINO GUTXIAGO BALDIN BADITU, HAREN GURASOAK, TUTOREAK, HARTZAILEAK ETA LEGEZKO EDO EGITATEZKO ZAINTZAILEAK IZANGO DIRA KALTEEN ERANTZULEAK (HURRENKERA HORRETAN), BAINA NOLA ERANTZUNGO DUTE?**
- 51a) Komunitarioki.
51b) Elkertasunez.
51c) Subsidiarioki.
51d) Osagarri modura.
- 52 ADINGABEEI HAINBAT MOTATAKO NEURRIARI EZAR DAKIZKIE, BAINA BADAGO HURRENKERA BAT, LEHENENGO ZEIN BETE JAKITEKO. ADIBIDEZ, LAU HAUETAKO ZEIN BETE BEHARKO DUTE LEHENENGO?**
- 52a) Erregimen itxian barneratzea.
52b) Zaintzapeko askatasuna.
52c) Barneratze terapeutikoa.
52d) Eguneko zentrora joan beharra.
- 53 IKUS DEZAGUN EUSKO LEGEBILTZARRAREN 3/2005 LEGEA, HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTZEKO ETA BABESTEKO. LEGEAK BADITU BABES-BETEBEHAR BATZUK JARRIAK, ADINGABEAK ZAINTZEKO; BADA, EZ BADIRA BETETZEN EDO EZIN BADIRA BETE EDO EZ BADIRA BEHAR BEZALA BETETZEN, ETA ADINGABEA, ONDORIOZ, BEHARREZKO DUEN LAGUNTZA MORAL EDO MATERIAL GABE GERATZEN BADA, ZEIN IZEN DU EGOERA HORREK?**
- 53a) Babesgabetasuna.
53b) Arriskua.
53c) Menpekotasuna.
53d) Premia.
- 54 TUTELAREN ARDURA DUEN ERAKUNDEAK ESKATUTA, BAKARRIK ETORRI DEN ADINGABEARI GOBERNUAK BIZILEKU-BAIMEN BAT EMANGO DIO. NOIZTIK AURRERA IZANGO DITU ONDORIOAK?**
- 54a) Bizileku-baimena ematen zaion egunetik aurrera.
54b) Adingabea Espainian sartu zenetik.
54c) Adingabea ordena publikoko indarren eskura geratu zenetik aurrera.
54d) Adingabea babes-zerbitzuen eskura geratu zenetik aurrera.

55 NAZIO BATUEK BADITUZTE ARAU BATZUK, ASKATASUNA KENDUTA DUTEN ADINGABEEI BABESA EMATEKO (HABANAKO ARAUAK). ZER DIOTE, ERLIJOEN PRAKTIKA DELA-ETA?

- 55a) ErliJoetako ordezkariak inola ere ez dute adingabeen zentroetan sartzeko baimenik izango.
- 55b) ErliJoetako ordezkariak zentro horietara joan ahal izango dira, baldin eta, soilik, barruko adingabeen gutxienez % 50ek dena delako erliJo horretako fededun izatea erabakitzen badu.
- 55c) Adingabe orok du eskubidea aukeratzeko duen edozein erliJotako ordezkari kalifikatu batek bisita dezan, eta baita erliJo-zerbitzuetan ez parte hartzeko eskubidea ere.
- 55d) Adingabe orok du eskubidea aukeratzeko duen edozein erliJotako ordezkari kalifikatu batek bisita dezan; halakoetan, erliJo-zerbitzuetara derrigor joan beharko du.

56 ADINGABEEN EPAILEAK ENTZUNALDIA IREKITZEKO AUTOA EMAN ONDOREN, IDAZKARI JUDIZIALAK ZENBAT EGUN IZANGO DITU ENTZUNALDI HORI ZEIN EGUNETAN ETA ORDUTAN EGIN ZEHAZTEKO?

- 56a) Hurrengo 5 egunetan egin beharko du.
- 56b) Hurrengo 10 egunetan egin beharko du.
- 56c) Hurrengo 15 egunetan egin beharko du.
- 56d) Hurrengo 30 egunetan egin beharko du.

57 ERREGIMEN ITXIKO BARNERATZE-NEURRIAK APLIKA DAITEZKE, SOILIK:

- 57a) Baldin eta gertakariak delitu larri modura badaude tipifikaturik Zigor Kodean.
- 57b) Baldin eta Zigor Kodean gertakariak delitu ez hain larri modura badaude tipifikaturik, baina indarkeria erabiliz edo pertsonak beldurtuz burutu badira.
- 57c) Baldin eta delitu modura tipifikaturik dauden gertakari horiek taldean egin badira edo adingabea talde antolatu bateko kide bada.
- 57d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

58 ALDIBATERAKO BIZILEKU-BAIMENAK ATZERRITARRARI ESPAINIAN BIZITZEKO BAIMENA EMANGO DIO, BAINA ZENBAT DENBORARAKO?

- 58a) 90 egun baino gehiago baina 5 urte baino gutxiago.
- 58b) 180 egun baino gehiago baina 5 urte baino gutxiago.
- 58c) 90 egun baino gehiago baina 7 urte baino gutxiago.
- 58d) 180 egun baino gehiago baina 7 urte baino gutxiago.

59 ARAU-HAUSTE PENALETAN, IDAZKARI JUDIZIALAK DENA DELAKO EPAIA ARAU-HAUSTE PENALAREN BIKTIMEI ETA KALTETUEI JAKINARAZIKO DIE, IDATZIZ:

- 59a) Baita espedientean alderdi modura agertu ez badira ere.
- 59b) Espedientea izapidetzen ari zen bitartean idatziz eskatu baldin bazuten besterik ez.
- 59c) Entzunaldia egiten den bitartean berariaz eskatzen badute baino ez.
- 59d) Akzio penala erabili badute soilik.

60 ADINGABEEN EPAILEAK EMATEN DITUEN EPAIEN AURKA, APELAZIO-ERREKURTSOA JAR DAITEKE DENA DELAKO PROBINTZIA-AUZITEGIAN; ZEIN EPETAN, BAINA?

- 60a) Hilabete.
- 60b) 10 egun.
- 60c) 5 egun.
- 60d) 3 egun.

61 KONTU EGIN ADINGABEARI ANTZEKO BI NEURRI EDO GEHIAGO EZARRI ZAIZKIOLA, EBAZPEN JUDIZIAL BAT BAINO GEHIAGOTAN. EXEKUZIOA EGITEKO ESKUMENA DUEN EPAILEAK, HALAKOETAN, NEURRI HORIEK BAKAR BATEAN BILDUKO DITU, DENEN IRAUPENA BATUZ; BAINA MUGA HAU GAINDITU GABE:

- 61a) Larrienari dagokionaren bikoitza.
- 61b) Larrienari dagokionaren hirukoitza.
- 61c) 5 urteko barnealdia.
- 61d) Ez dago mugarik.

62 IKUS DEZAGUN EUSKO LEGEBILTZARRAREN 3/2005 LEGEA, HAURRAK ETA NERABEAK ZAIITZEKO ETA BABESTEKOA. ADINGABEAK HALA ESKATZEN BADU, FAMILIA-HARRERA BERTAN BEHERA GERA DAITEKE. ADINGABEAK ZENBAT URTE EDUKI BEHAR DITU HORRETARAKO?

- 62a) 10 urte beteak.
- 62b) 12 urte beteak.
- 62c) 14 urte beteak.
- 62d) 16 urte beteak.

63 IKUS DITZAGUN "RIADKO JARRAIBIDEAK". GAZTE-DELINKUENTZIARI AURREA HARTZEKO DIRA, ETA, ADIGABEEN JUSTIZIA DELA-ETA, ESATEN DUTE LEGEETAN BADIRELA BERMATU BEHARREKO GAUZA BATZUK, GAZTEEN KRIMINALIZAZIOAN AURRERA EZ EGITEARREN:

- 63a) Eskoletan, toxikomaniei aurrea hartzeko programak ematea.
- 63b) Gazteei jartzen zaizkien zehapenek ez dute zerikusirik nagusien delituekin.
- 63c) Nagusiek eginik delitutzat jotzen ez den eta zehaturik ez dagoen ezer ezin da delitutzat jo edo zehaturik egon adingabe batek egiten duenean.
- 63d) Gazteek egiten dituzten faltak barneratze-neurriak erabiliz zigortu behar dira beti.

64 ATZERRITARREN BIRBATZEA DELA-ETA ETORRI DIREN SEME-ALABEK BEREN KASAKO BESTE BIZILEKU-BAIMEN BAT LORTU AHAL IZANGO DUTE, ADIN NAGUSIRA IRISTEN DIRENEAN ETA

- 64a) Nahikoa baliabide ekonomiko baldin badaukate.
- 64b) Portaera egokia erakusten badute.
- 64c) Seme-alabak dauzkatenean.
- 64d) Hiru baldintza horiek betetzen direnean.

65 HITZ EGIN DEZAGUN EUSKO LEGEBILTZARRAREN 3/2005 LEGEAZ, HAURRAK ETA NERABEAK ZAIITZEKO ETA BABESTEKOAZ. HARRERA ARAUTZEN DUENEAN, ZER-NOLAKO FUNTZIO MODURA DEFINITZEN DU FAMILIA HARTZAILEAK ADMINISTRAZIOAREKIKO DAUKANA, ADMINISTRAZIOAREN BABES-FUNTZIOAK KONTUAN HARTURIK?

- 65a) Menpekotasuna.
- 65b) Zaintza.
- 65c) Tutoretza.
- 65d) Lankidetzatza.

66 BEIJINGO ARAUETAN JARTZEN DUENEZ (ADINGABEEN JUSTIZIARAKO DIRA), ZEIN HELBURU DU ADINGABEEN JUSTIZIAK?

- 66a) Adingabeen justiziak izan behar du eraginkorra, eragimentsua eta parte-hartzailea.
- 66b) Adingabeen justizia-sistemak haien ongizatea izango du bereziki gogoan, eta bermatuko du ezen erantzun oro neurrikoa izatea, beti, delitugilearen egoeraren eta delituaren arabera.
- 66c) Adingabeen justiziarik buruzko legedia bost urtez behin errebisatu beharra dago, eta, gainera, Europako Kontseiluak ematen dituen garapen-arauetara egokitu beharko da.
- 66d) Adingabeak, barnealdia amaitzen dutenean, atzera gizartera itzuli behar dira, gazteentzako justizia-sistematik igaro izanaren inolako erregistrorik jasota utzi gabe.

67 FAMILIAREN BABES-HARREMANA DELA-ETA, ADMINISTRAZIOAK TOPAGUNE BATZUK SORTZEKO BIDEA JARRI DU, BISITAK IKUSKATZEA KOMENI DENETAN ERE GURASO ETA SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANA MANTENDU AHAL IZAN DADIN. ZEIN ADMINISTRAZIOAK?

- 67a) Eusko Jaurlaritzak.
- 67b) Foru-aldundiek.
- 67c) Udalek.
- 67d) Eskualdeko batzarrek.

68 III. GAZTE JUSTIZIA PLANAREN ARABERA (2008-2012) ZEIN DA PLANTEAMENDU ETA JARDUKETA GUZTIEN EGONARRI NAGUSIA ETA ERREFERENTZIAZKOA?

- 68a) Adingabetasuna, neurriak exekutatzen diren bitartean.
- 68b) Pertsona horiek nerabeak izatea.
- 68c) Gazte Justiziako ikastetxeen kudeaketa publikoa.
- 68d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

69 PRINTZIBIO HAUETAKO ZEIN EZ DAGO JASOTA III. GAZTE JUSTIZIA PLANEAN (2008-2012)?

- 69a) Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea.
- 69b) Interbentzio minimoa.
- 69c) Subsidiarioritasun publikoa.
- 69d) Elkarrekikotasuna eta berehalakotasuna.

70 III. GAZTE JUSTIZIA PLANA (2008-2012). NORMALIZAZIO-PRINTZIBIOAREN ARABERA, AUKERA HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

- 70a) Neurriak exekutatzeke, ahal dela, ez da berariazko baliabiderik sortu behar.
- 70b) Beste erakunde batzuekiko lankidetzat handia eta eraginkorra behar da: osasuna, hezkuntza, etxebizitza eta beste hainbatekin.
- 70c) Neurri bat bete behar duen edonork dauka eskubidea legez aitorturik dituen premia guztiak aserik edukitzeke.
- 70d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

71 III. GAZTE JUSTIZIAKO PLANENKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOEN ARABERA, ZEIN BALIABIDE IZANGO DUGU?

- 71a) Ingurune irekiko neurriak exekutatzeko, ingurune irekiko hiru talde eta eguneko hiru zentro.
- 71b) Ingurune irekiko neurriak exekutatzeko, ingurune irekiko sei talde eta eguneko hiru zentro.
- 71c) Ingurune irekiko neurriak exekutatzeko, ingurune irekiko lau talde eta eguneko zentro bat.
- 71d) Ingurune irekiko neurriak exekutatzeko, ingurune irekiko talde bat eta eguneko bi zentro.

72 III. GAZTE JUSTIZIA PLANAREN ARABERA, GAZTE-JUSTIZIAKO IKASTETXE GUZTIETAN, PLANTILLAN, BADIRA...

- 72a) Irakasleak, hezitzaileak eta zuzendaritzako langileak.
- 72b) Irakasleak, hezitzaileak, zuzendaritzako langileak eta koordinatzaileak eta teknikariak.
- 72c) Hezitzaileak, koordinatzaileak eta teknikariak eta zuzendaritza-taldeko langileak.
- 72d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

73 III. GAZTE JUSTIZIA PLANAREN ARABERA, ZER-NOLAKO KUDEAKETA-EREDUREN ALDE EGIN DA, NEURRIAK EXEKUTATZEKO?

- 73a) Erabat eta soilik publikoa.
- 73b) Mistoa eta titulartasun eta erantzukizun publikokoa.
- 73c) Titulartasun publikokoa eta kudeaketa pribatukoa.
- 73d) Erantzukizun mistokoa eta kudeaketa mistokoa.

74 30/1992 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA PROZEDURA AMAITZEKO MODU ARRUNTA EDO NORMALA?

- 74a) Ebazpena.
- 74b) Atzera egitea.
- 74c) Eskariaren oinarrian dagoen eskubideari uko egitea.
- 74d) Iraungitze-deklarazioa.

75 BALORATU DUGU II GAZTE JUSTIZIA PLANA, ETA, ONDORIOEN ARTETIK, ZER NABARMENDU BEHAR DA?

- 75a) Neurri judizialen baten pean dauden adingabeko guztien % 41 baino gehiago atzerritarra da, eta bazterketa-arazo handiak ditu.
- 75b) Neurri judizialen baten pean dauden adingabeko guztien % 27 baino gutxiago da atzerritarra eta dauzka bazterketa-arazo handiak.
- 75c) Barneratzea eta asteburuetan bertan egotea; horrelakoak dira neurri gehienak.
- 75d) Ingurune irekiko neurriak ez dira neurri guztien % 49ra iristen.

76 III. GAZTE JUSTIZIA PLANEAN (2008-2012) HAINBAT NEURRI DAGO DENBORAN ANTOLATURIK ETA ADIERAZLEZ HORNITURIK:

- 76a) Eusko Jaurlaritzako eta hiru foru-aldundietako hainbat sailetarako.
- 76b) Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetarako, hiru foru-aldundietako eta EUDElerako.
- 76c) Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetarako eta EUDElerako.
- 76d) Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetarako.

77 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. IKASTETXEAN HARTUTA DAUDEN PERTSONEI HAINBAT ESKUBIDE AITORTZEN DIE:

- 77a) Hurbileko senitartekoren bat hil egin bada, istripua izan badu edo larriki gaixo baldin badago, berehala jakiteko eskubidea.
- 77b) Espedientean dituen datuak isilpean gorde behar dira eta haiek erabiltzeko erreserba-betebeharra ere zaindu beharra dago.
- 77c) Banakako bere hezkuntza-proiektuan oinarrituta, astean paga bat jasotzeko eskubidea, bere gastuetarako.
- 77d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

78 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. LAGUNTZA ESKAINTZEKO ETA ESKU HARTZEKO HAINBAT ESPARRU AIPATZEN DU; BESTEAK BESTE:

- 78a) Osasuna, oinarrizko ohiturak, ongizate emozionala, prestakuntza, autonomia eta erantzukizuna, erkidegoaren laguntza eta premia bereziak.
- 78b) Osasuna, oinarrizko ohiturak, ongizate emozionala, prestakuntza, autonomia eta langabezia-laguntza eta premia bereziak.
- 78c) Osasuna, langabezia-laguntza, ongizate emozionala, prestakuntza, autonomia eta erantzukizuna eta erkidegoaren laguntza.
- 78d) Erantzun guztiak okerrak dira.

79 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. DEKRETU HORRETAN JARTZEN DUENEZ, AZTERLAN HAUETAKO ZEIN EGONGO DA BANAKAKO HEZKUNTZA-PROIEKTUAREN BARRUAN?

- 79a) Egiten dena jakiteko ea komeni den edo ez, adingabea adin nagusiko egin aurretik, bitartekaritzarik egitea haren eta biktimaren edo biktimen artean.
- 79b) Egiten dena jakiteko ea komeni den edo ez, adingabea adin nagusiko egiten denean, bitartekaritzarik egitea haren eta biktimaren edo biktimen artean.
- 79c) Egiten dena jakiteko ea komeni den edo ez bitartekaritzarik egitea adingabearen eta biktimaren edo biktimen artean.
- 79d) Egiten dena jakiteko ea komeni den edo ez, delitua hain larria ez denean, bitartekaritzarik egitea adingabearen eta biktimaren edo biktimen artean.

80 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. DEKRETU HORREN ARABERA, IKASTETXEAN, LANGILE KUALIFIKATUAK ARITUKO DIRA, ETA, GAINERA...

- 80a) Zuzeneko heziketa-laguntzan aritzen diren profesionalen gutxienez % 50ek hezkuntza sozialeko unibertsitate-titulua eduki beharko du.
- 80b) Zuzeneko heziketa-laguntzako profesionalen gutxienez % 50ek unibertsitateko erdi- edo goimailako titulazioa eduki beharko du; ahal dela, arlo psikosozioedukatioetakoak.
- 80c) Zuzeneko heziketa-laguntzan aritzen diren profesionalen gutxienez % 80k hezkuntza sozialeko unibertsitate-titulua eduki beharko du.
- 80d) Zuzeneko heziketa-laguntzako profesionalen % 80k gutxienez unibertsitateko erdi- edo goimailako titulazioa eduki behar du; ahal dela, arlo psikosozioedukatioetakoak.

81 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. ZER DIO, 23. ARTIKULUAN?

- 81a) Itxian bete beharreko neurri iraupen laburrekoak eta erdi irekian edo irekian bete beharrekoak, erkidegoarekiko lotura estua eskatzen dutenak: neurri horiek betetzeko daude erkidegoan integratzeko zentroak edo II. mailakoak.
- 81b) Itxian bete beharreko neurri iraupen laburrekoak eta erdi irekian edo irekian bete beharrekoak, erkidegoarekiko lotura estua eskatzen dutenak: neurri horiek betetzeko daude autonomia-zentroak edo III. mailakoak.
- 81c) Itxian bete beharreko neurri iraupen laburrekoak eta erdi irekian edo irekian bete beharrekoak, erkidegoarekiko lotura estua eskatzen dutenak: neurri horiek betetzeko daude I. mailako zentroak.
- 81d) Itxian, erdi irekian edo irekian bete beharreko neurriak betetzeko, erkidegoarekiko lotura estua eskatzen dutenak: neurri horiek betetzeko daude I. mailako zentroak.

82 AHAL DELA, NORK KUDEATUKO DITU I. MAILAKO ZENTROAK?

- 82a) Segurtasun Saileko langileek, zuzenean.
- 82b) Justiziako eskumenak dituen saileko langileek, zuzenean.
- 82c) Irabazi asmorik gabeko erakunde edo elkarteen bitartez, zeharka.
- 82d) Lehenengo bi erantzunak dira zuzenak.

83 I. MAILAKO ZENTROAK:

- 83a) Bizikidetza-unitate bakoitzeko ezin dute, inoiz ere ez, 9 leku baino gehiago eduki; eta, guztira, 40 baino gehiago ez.
- 83b) Bizikidetza-unitate bakoitzeko ezin dute, inoiz ere ez, 8 leku baino gehiago eduki; eta, guztira, 35 baino gehiago ez.
- 83c) Bizikidetza-unitate bakoitzeko ezin dute, inoiz ere ez, 8 leku baino gehiago eduki; eta, guztira, 40 baino gehiago ez.
- 83d) Bizikidetza-unitate bakoitzeko ezin dute, inoiz ere ez, 9 leku baino gehiago eduki; eta, guztira, 45 baino gehiago ez.

84 I. MAILAKO ZENTROAK:

- 84a) Talde bakoitzeko -talde bakoitzean sei lagun edo gehiago baldin badaude-, gutxienez 10 hezitzaile egongo da.
- 84b) Talde bakoitzeko -talde bakoitzean sei lagun edo gehiago baldin badaude-, gutxienez 8 hezitzaile egongo da.
- 84c) Talde bakoitzeko -talde bakoitzean zortzi lagun edo gehiago baldin badaude-, gutxienez 8 hezitzaile egongo da.
- 84d) Talde bakoitzeko -talde bakoitzean sei lagun edo gutxiago baldin badaude-, gutxienez 10 hezitzaile egongo da.

85 ERKIDEGOAN INTEGRATZEKO ZENTROAK (II. MAILA).

- 85a) Txikiak izango dira; eta, bizikidetza-unitate bakoitzeko, inoiz ere ezin dute 10 leku baino gehiago eduki.
- 85b) Guztira, ezin dute, inoiz ere ez, 20 leku baino gehiago eduki.
- 85c) Orokortasuna nahiko dute lortu asmoz eta gogoz, eta ingurune hurbilarekiko etengabeko kontaktuan egongo dira.
- 85d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

86 AUTONOMIA-EGOITZAK (III. MAILA).

- 86a) Gehienez ere sei leku izango dituzte; eta, gutxienez, lau hezitzaile.
- 86b) Gehienez ere sei leku izango dituzte; eta, gutxienez, sei hezitzaile.
- 86c) Gehienez ere lau leku izango dituzte; eta, gutxienez, lau hezitzaile.
- 86d) Gehienez ere zortzi leku izango dituzte; eta, gutxienez, zortzi hezitzaile.

87 I. MAILAKO ZENTROAK:

- 87a) Mistoak izan daitezke, eta edozein erregimenetako neurri irmoak betetzeko izango dira soilik.
- 87b) Ezin dira mistoak izan, eta edozein erregimenetako neurri irmoak eta kautelazkoak betetzeko izango dira soilik.
- 87c) Mistoak izan daitezke, eta kanpoarekiko kontaktua gehiago murriztea dakarten neurriak betetzeko izango dira.
- 87d) Ezin dira mistoak izan, eta kanpoarekiko kontaktua gehiago murriztea dakarten neurriak betetzeko izango dira.

88 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. 29. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA DIZIPLINA ANITZEKO TALDEAREN EGINKIZUNA?

- 88a) Ikastetxearen barruko araudia betetzen dela bermatzea.
- 88b) Adingabeak banaka aztertu ondoren, Banakako Hezkuntza Proiektua egitea, eta aldi behin berriro errebisatzea, daraman bilakaeraren arabera.
- 88c) Egoitza ikuskatzeko baimena ematea, erregelamenduz jasota dauden egoeretan eta baldintzetan.
- 88d) Aztertzea ea zentroak ekonomia-arloko edo bestelako zein premia daukan ondo funtzionatzeko.

89 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. 29. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA HEZITZAILEEN EGINKIZUNA?

- 89a) Zentroko kontrol- eta segurtasun-lanak egitea.
- 89b) Dagozkien lokalizazio- eta disponibilitate-guardiak egitea.
- 89c) Erabakiak hartzeko orduan, zuzendaritza-taldeari aholkuak ematea.
- 89d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

90 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. 29. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA HEZITZAILEEN EGINKIZUNA?

- 90a) Beharrezkoa bada, lokalizazio- eta disponibilitate-guardiak egitea, ikastetxeko arduradun modura.
- 90b) Bizikidetzaren larriki asaldatzea gertatzen denean, badaezpada hartu beharreko neurriak hartzea, zentroko zuzendaritzaren ordezkari gisa.
- 90c) Zentroa zaintzeko eta mantentzeko erantzukizuna hartzea.
- 90d) Tutoretzapean dituzten adingabeen irteera-baimenak ematea.

91 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. 29. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA HEZITZAILEEN EGINKIZUNA?

- 91a) Jarduerarik egin behar dutenean, zitazioetara joan behar dutenean eta halakoetan, neska-mutikoak laguntzea.
- 91b) Interbentzio-esparru guztietako informazioa biltzea eta aztertzea.
- 91c) Ikastetxearen barruko arauak betetzen direla bermatzea.
- 91d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

92 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. ZER DIO, 41. ARTIKULUAN?

- 92a) Banakako Hezkuntza Proiektuan, garatuko bada, beharrezkoa da adingabeak ere parte hartzea.
- 92b) Banakako Hezkuntza Proiektuan, onartuko bada, beharrezkoa da adingabeak eta adingabearen legezko tutoreek ere parte hartzea.
- 92c) Banakako Hezkuntza Proiektuan, onartuko bada, beharrezkoa da adingabearen legezko tutoreek ere parte hartzea.
- 92d) Banakako Hezkuntza Proiektuan, garatuko bada, beharrezkoa da adingabeak eta adingabearen letratuak ere parte hartzea.

93 EUSKO JAURLARITZAREN 80/2009 DEKRETUA, IKASTETXEEI BURUZKOA. ZER DIO, 41. ARTIKULUAN?

- 93a) Hasierako behaketa-epe bat egongo da; lehenengo zortzi asteetakoa.
- 93b) Hasierako behaketa-epe bat egongo da; lehenengo astebetekoa.
- 93c) Hasierako behaketa-epe bat egongo da; lehenengo hamabi asteetakoa.
- 93d) Hasierako behaketa-epe bat egongo da; lehenengo lau asteetakoa.

94 POLIZIA JUDIZIALAREN JARDUNA.

- 94a) Polizia judizialak adingabeek zer egin duten ikertzen parte hartzen du, gertakari horiek delituak edo faltak izan badaitezke. Adingabeen Epaitegiaren zuzendaritzapean jardungo du.
- 94b) Polizia judizialak adingabeek zer egin duten ikertzen parte hartzen du, gertakari horiek delituak edo faltak izan badaitezke. Fiskaltzaren zuzendaritzapean jardungo du.
- 94c) Polizia judizialak adingabeek zer egin duten ikertzen parte hartzen du, gertakari horiek delituak edo faltak izan badaitezke. Justizia Ministerioaren zuzendaritzapean jardungo du.
- 94d) Polizia judizialak adingabeek zer egin duten ikertzen parte hartzen du, gertakari horiek delituak edo faltak izan badaitezke. Guardiako epaitegiaren zuzendaritzapean jardungo du.

95 TALDE TEKNIKOEN BERRI 5/2000 LEGE ORGANIKOAN DAGO JASOTA. NORK OSATZEN DITU?

- 95a) Psikologo, hezitzaile eta gizarte-langileek.
- 95b) Psikologo, letratu eta gizarte-langileek.
- 95c) Psikologo, irakasle eta gizarte-hezitzaileek.
- 95d) Psikologo, hezitzaile eta letratuak.

- 96 ERAKUNDE PUBLIKOAK PROPOSATZEN DUEN ZENTROAK, AURRETIAZ, BAIMEN JUDIZIALA BEHARKO DU...**
- 96a) Adingabea beste autonomia-erkidego bateko zentro batean sartzea baldin bada proposatzen dena.
- 96b) Dena delako neurria exekutatzeko aldera adingabea zentro soziosanitario batean sartzea baldin bada proposatzen dena.
- 96c) Proposatzen dena baldin bada adingabea, hobe beharrez, autonomia-erkidegoan bertan baina etxetik, familiagandik eta gizarte-ingurutik urrunago dagoen beste zentro batean sartzea.
- 96d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 97 BARNERATZE-NEURRIETAN, ZEIN MAIZ EGIN BEHAR DIRA JARRAIPEN-TXOSTENAK?**
- 97a) Lau hilean behin.
- 97b) Hiru hilean behin.
- 97c) Bi hilean behin.
- 97d) Hilean behin.
- 98 30/1992 LEGEAREN ARABERA, ZEREN PARTE DA ENTZUNALDI-TRAMITEA?**
- 98a) Prozeduraren instrukzioarena.
- 98b) Prozeduraren antolamenduarena.
- 98c) Prozeduraren abiaraztearena.
- 98d) Prozeduraren amaierarena.
- 99 IKUS DEZAGUN ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGEA, DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKOA. NOR DA TRATAMENDUAREN ZERTARAKOAZ, EDUKIAZ EDO ERABILERAZ ERABAKITZEN DUEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKO PUBLIKO EDO PRIVATUA EDO ADMINISTRAZIO-ORGANOA?**
- 99a) Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea.
- 99b) Tratamenduaren arduraduna.
- 99c) Web masterra.
- 99d) Aurreko bat ere ez.
- 100 OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. LEGE HORREN ARABERA, BADIRA NEURRI BATZUK, BERARIAZ ETA ALDI BATERAKO HARTZEN DIRENAK, SEXUA DELA-ETA BIZITZAREN ESPARRU BATEAN ETA BESTEAN IZAN BADIREN DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO EDO MURRIZTEKO. ZER DIRA?**
- 100a) Zuzeneko bereizkeria.
- 100b) Zeharkako bereizkeria.
- 100c) Bereizkeria positiboa.
- 100d) Ekintza positiboa.

ORDEZKO GALDERAK

- 101 HITZ EGIN DEZAGUN NAZIO BATUEK ADINGABE ASKATASUN GABETUAK BABESTEKO DAUZKATEN ARAUEI BURUZ (HABANAKO ARAUAK). ZER DIOTE ADINGABEEN INTIMITATE-ESKUBIDEAZ?**
- 101a) Langileek inolako muga edo kontrolik gabe erabil dezaketela adingabeen informazio konfidentziala.
- 101b) Langile guztiek errespetatu beharrekoa dela; eta, bereziki, lanean ari direla, adingabeen edo haien familien ezer konfidentzialik jakitera iristen baldin badira, informazio horiek denak errespetatu egin behar dituztela.
- 101c) Langile guztiek errespetatu beharrekoa dela; eta, bereziki, lanean ari direla, adingabeen ezer konfidentzialik jakitera iristen baldin badira, informazio horiek denak errespetatu egin behar dituztela, adingabeen familiak aipatu gabe.
- 101d) Erantzun guztiak gezurra dira.
- 102 1/1996 LEGE ORGANIKOA, URTARRILAREN 15EKOA, ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARI BURUZKOA. LEGE HORREN ARABERA, ADINGABEEN ESKUBIDEEN BABESA BERMATZE ALDERA, ADINGABEAK BABESTEKO ESKUMENA DUEN ERAKUNDE PUBLIKOAK ZENTRO ETA ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK IKUSKATZEKO ETA GAINBEGIRATZEKO ARDURA IZANGO DU.**
- 102a) Urtean behin.
- 102b) Sei hilean behin.
- 102c) Hilero.
- 102d) Astero.
- 103 ADIN NAGUSIKO ATZERRITAR BAT ESPAINIATIK KANPORATZEKO ESPEDIENTEA IZAPIDETZEN DEN BITARTEAN, INSTRUKZIO-EPAILEAK ATZERRITAR HORI BARNERATZE-ZENTRO BATEAN SAR DADIN XEDA DEZAKE... ZENBAT DENBORARAKO GEHIENEZ ERE?**
- 103a) 30 egun.
- 103b) 60 egun.
- 103c) 90 egun.
- 103d) 180 egun.
- 104 TUTELA-EREDUAREN EZAUGARRIAK NAHI DITUGU:**
- 104a) Portaera arrazoiei begira interpretatzea, esku-hartze publikoa terapeutikoa izatea, eta auzitegietatik kanpoko organoek eta organo mistoek ere eskumenak izatea.
- 104b) Babesa eta laguntza da aginte publikoen esku-hartzearen ardatza, paternalista izatea, eta erantzuna gizarte-ongizateko sistemek administratzea.
- 104c) Portaera arrazoiei begira interpretatzea, erantzunaren judizializazioa, eta adingabeak bere ekintzen erantzukizuna onartzea.
- 104d) Babesa eta laguntza da aginte publikoen esku-hartzearen ardatza, gizarte-ezberdintasunen arazoak eta delituen arazoak batera tratatzea, eta adingabeak bere ekintzen erantzukizuna onartzea.

- 105 ZER DA, GNS-10(CIE-10)AREN ARABERA, AGERKARI FISIOLÓGIKO, PORTAERAZKO ETA KONGNOSZITIBOA, ZEINETAN DROGA BAT EDO DROGA-MOTA BAT HARTZEAK LEHENTASUN ERABATEKOA DUEN NORBANAKOARENTZAT?**
- 105a) Abstinentzia-sindromea.
105b) Menpekotasun-sindromea.
105c) Gehiegizko kontsumoa diagnostikatzeko irizpidea.
105d) Erantzun guztiak gezurra dira.
- 106 GAZTE JUSTIZIAKO III. PLANAK BOST HELBURU OROKOR DITU. HAUETAKO ZEIN EZ DA AIPATZEN?**
- 106a) Adingabeek egiten dituzten arau-hausteak prebenitzea eta gutxiaraztea.
106b) Adingabe arau-hausleei gizarteratzen laguntzea edo hobeto gizarteratzen laguntzea.
106c) Adingabeen jurisdikzioan berrekite-tasak murriztea.
106d) Adingabeen epaitegiek hartzen dituzten ebazpen judizialeatik, EAEko administrazio orokorraren eskumen diren guztien exekuzioa bermatzea.
- 107 BALORATU DUGU II. GAZTE JUSTIZIA PLANA, ETA, ONDORIOEN ARTETIK, ZER NABARMENDU BEHAR DA?**
- 107a) Neurriek gehiago irauten dutela.
107b) Buruko nahasmenen eraginak gora egin duela.
107c) Beste delitu-tipologia batzuk agertu direla.
107d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 108 AUTONOMIA-EGOITZAK (III. MAILA).**
- 108a) Kudeaketa, ahal dela, zuzenekoa izango da, eta EAEko administrazio orokorreko lan-kontratudun langileek egingo dute.
108b) Kudeaketa, ahal dela, zuzenekoa izango da, eta EAEko administrazio orokorreko lan-kontratudun langileek edo karrerako funtzionarioek egingo dute.
108c) Kudeaketa, ahal dela, zeharkakoa izango da, eta Erakundeen Erregistroan izenemanda dauden irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteek egingo dute.
108d) Kudeaketa, ahal dela, zeharkakoa izango da, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan izenemanda dauden erakunde, gizarteratze-enpresa edo kooperatibek egingo dute.
- 109 ZENTRO GUZTIETAN EGONGO DA JARDUERAK ETA AISIALDIA ARAUTZEKO ORDUTEGI BAT.**
- 109a) Eta ordutegi horretan, badira bi gauza bermatu beharrekoak: gauero-gauero gutxienez bederatzi orduko atsedenaldua; eta, ahal dela, lau ordu, aire librean.
109b) Eta ordutegi horretan, badira bi gauza bermatu beharrekoak: gauero-gauero gutxienez zortzi orduko atsedenaldua; eta, ahal dela, bi ordu, aire librean.
109c) Eta ordutegi horretan, badira bi gauza bermatu beharrekoak: gauero-gauero gutxienez zortzi orduko atsedenaldua; eta hiru ordu, aire librean.
109d) Eta ordutegi horretan, badira bi gauza bermatu beharrekoak: gauero-gauero gutxienez 9 orduko atsedenaldua; eta, ahal dela, hiru ordu, aire librean.

110 DIZIPLINAZKO ARAU-HAUSTEAK:

- 110a) Bi eratakoak izan daitezke: oso larriak edo larriak.
- 110b) Bi eratakoak izan daitezke: larriak edo arinak.
- 110c) Hiru eratakoak izan daitezke: larriak, ez hain larriak eta arinak.
- 110d) Hiru eratakoak izan daitezke: oso larriak, larriak eta arinak.

Bolsa de Trabajo

Educadores/as de Centro de Menores

1^{er} ejercicio, parte teórica

Modelo A

01/03/2015

1 EL MENOR EN CONFLICTO SOCIAL ES AQUEL QUE SE ENCUENTRA EN UN PROCESO DE DESADAPTACION RESPECTO A LAS NORMAS SOCIALMENTE ESTABLECIDAS:

- 1a) Verdadero siempre que el menor sea mayor a 14 años.
- 1b) Verdadero siempre que el menor tenga entre 15 y 16 años.
- 1c) La definición hace referencia a todos los menores de edad.
- 1d) Todas las respuestas son falsas.

2 EN LA INFANCIA Y EN LA ADOLESCENCIA APARECEN COMPORTAMIENTOS ANTISOCIALES E INCLUSO DELICTIVOS QUE SE CORRESPONDEN CON CONDUCTAS QUE FORMAN PARTE DEL PROCESO NORMALIZADO DE CRECIMIENTO, APRENDIZAJE Y DESARROLLO SOCIAL DE LOS MISMOS:

- 2a) Verdadero.
- 2b) Falso.
- 2c) Sólo si las conductas antisociales comportan violencia.
- 2d) Sólo si las conductas antisociales no comportan violencia.

3 ALGUNAS DE LAS PRINCIPALES TEORIAS EXPLICATIVAS QUE HACEN REFERENCIA AL ORIGEN Y DESARROLLO DE UN PROCESO DE INADAPTACION Y CONFLICTO SOCIAL DE LOS MENORES SON:

- 3a) Las Teorías Psicoanalíticas.
- 3b) Las Teorías del Aprendizaje Social.
- 3c) Las Teorías Cognitivas y Subcognitivas.
- 3d) Las Psicoanalíticas, del Aprendizaje Social, Cognitivas y Ecológicas.

4 PREDICCIÓN Y PREVENCIÓN DE LA DELINCUENCIA JUVENIL SON TERMINOS INTIMAMENTE RELACIONADOS:

- 4a) Prevenir se dirige a evitar comportamientos antisociales o delictivos y con la predicción se busca conocer las situaciones de riesgo.
- 4b) No hay relación entre los dos términos si hablamos de delincuencia juvenil.
- 4c) Tienen el mismo significado si nos referimos a delitos juveniles.
- 4d) La prevención es más eficaz en la delincuencia cometida por adultos y la predicción en la delincuencia perpetrada por menores de edad.

5 LOS FACTORES DE MAYOR RIESGO PARA EL COMIENZO DE CONDUCTAS ANTISOCIALES SEGÚN LAS TEORIAS DEL DESARROLLO SON:

- 5a) Crianza sólida.
- 5b) Alto coeficiente intelectual.
- 5c) Recursos económicos.
- 5d) Crianza de baja calidad, bajo coeficiente intelectual y falta de recursos económicos.

